

ANAITASUNA

V URTEA - N.º 44

Suplemento a la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Jurtarrilla (I) 1958

Leitza-ko jaialdia

Egun zoragarria ta aaztu eziña benetan Abenduaren 22-an Leitza-ko erriak bizi eban. Naparroa zaarreko erri txiki bat dozue Leitza. Milla ta zazpireun lagun inguru izango ditu guztira. Emen izan zan, ba, egun orretan, Orixe jaunaren omenaldi andia.

Nikolas Ormaetxea edo Orixe jauna nor dan ezta eztakienik, euskaltzaleen artean beñipein. Guipuzkoako Oreja-n jaio zan, 1888'gn. urtean. Baiña txiki-txikitatik Naparroako Uitzin (Huici) bizi ta azi zan. Euskeraz be erri txikar onetan ikasi eban. Eta onelako jaialdi bat atonduteko Uitzin erri, txikiogia zala-ta, andik urrean dagoan Leitza aukeratu zan.

Makiña bat lan egiña da Orixe jauna euskerearen alde. Amaika liburu ta idazki eskribidu ditu euskeraz. "Mireio", "Tormes-ko itsu-mutilla" (au Bizkaiko euskeraz), "Santa Kruz Apaiza", "Barne-muiñetan", San Agustiñen "Aitorkizunak" edo Konfesiñoak, eta azkenik, danetatik ezagunenak eta gomutagarrienak, "Euskaldunak" Poemea eta "Urte guziko Meza-Bezperak".

Bere lan ezkerge orrengatik ondo merezidu eban Orixe jaunak onelako omenaldi ta goras-reea. Goiz-goizetik asi zan jentea erruz etortzen Leitza-ra, bai Iruñe edo Pamplonatik, bai Bilbo, Donostia, Tolosa eta Frantzia-aldeko Euskalerritik be bai. An eguan Uranga jauna "Institución Príncipe de Viana"-ren izenean, euskaldun Akademia osoa, Tolosa'ko "Felipe Gorriti" eritxon kantari-taldea, txistulariak, ezpatadantzariak, ta abar.

Goizeko amar t'erdiatan erriko etxetik eleizeara egin zan prozesiñoa, ezpatadantzarien artean etorrela Orixe jauna. Eleizean Meza nagusia, eta Meza orren barruan Orixe jaunak bakarrik Jauna artu eban. Meza-ostean barriro erriko etxera. Emen egin eban Orixe jaunak bere berbaldia euskal Akademiaren sartuteko. Leitza ta inguruko euskerearen azentua zelangoa dan aztertu eban bere berbaldi orretan. Gero Mitxelena jaunak erantzun eutsan Akademiaren izenean.

Ordu batetan egin zan bazkaria, Naparroako Diputaziñoak eskeiña. Bazkal ostean Arrue jauna jagi zan berba sutu batzuk euskal Akademiaren izenean esateko, danari eskerrak emonaz. Euskaldun guztiak euskerea jagoten, maitatuten ta bizirik ataraten arduratu bear gareala ta abar esaten ekin eutson. "Felipe Gorriti"-ko kantariak be konzierto alai emon eban.

Gero, arratsaldean, euskal erromeria egin zan Leitza-ko plazan: dantzariak, aizkolariak, aari-talka edo topeka, arta koskol postura, Olentzaro begigorriren agertutea. Illuntzean, barriz bakotxa bere txokora, aaztu eziñezko gomutea ta poza biotzean. Zenbat jaun eta andra etzirean an batu, euskerea maite ta euskerearen alde lan egin gura dabena! Danak asmo ta gogo bardin orregaz. An eguan Azpiroz jauna, Valkarlos-ko abadea, bere erritarrentzat orri gozo samur bat egiten dabena euskeraz, an Etxaide jauna euskerazko ainbeste liburu atara dituzana, Txillardegi, Zugasti, Oleaga, Erkiaga, Arrutza, Lekuona, Artetxe, Arenaza, Irigoien, Irigarai, Aresti, Peña, Lafitte, Dassance, Laveguerie, Eperre, Barriola, Bordari, Zeleta, Altzeta, Lojendio, Etxaniz, Labaien, Mokoroa, Díaz de Unzurrun, Agerre, Loidi, Zarauz'ko Patxi Unzurrunzaga eta beste asko. Ezin danak aiatu, gurata bere. Eta an batu zirean guztiak amodio bategaz etozen: danak euskerearen amodioak eraginda. Bai, euskerea dala euskaldunon ondasuna, eta ondasun ori eztozula galduten itxi bear: au zan an batutako guztien eretxi, asmo ta ardurea.

Ain zuzen be, jai, nik esango neuke, Orixe-rena barik, euskerearen izan zala. Euskalerriak euskerean dauko beretasun berezia, antxiñatik yatorkun aberastasun andia. Oneri eutsi bear deustagu. Ederra dalako eta batez be geurea dalako. Astakeria galanta egingo gendukena mundu guztia-aren aurrean, gizaldirik gizaldi eldu yakun berbeta guk orain geure ardurabagekeriaz galduten itxiko bagenu. Euskerea maite ta jagon daigun ba. Orra Leitza-ko jaialdiaren esangurea.

L. Villasante

Beste mundu batzuk

Beste gizon batzuk?

Tintarik asko gasta da munduan igaroko illebeteetan «Sputnik» satelitearen, edo sateliteen, gorabeera orretan. Satellite bat, bi, iru... ederto igon direala. «Vanguard» metro bat edo bi igon, eta, geiago ezinean, bearen ganera jausi ta explota egin dala...

Zer dira ba sateliteak? Ori gerotxuago esango deusut. Orain sateliteak baiño gorago jaso bear doguz begiak eta begien atzetik pentsamentua. Bein baiño geiagotan, bear bada, Udako gau epel, izarratu baten altsa doguz begiak eta pentsamentua geure buruak baiño gorago, eta geure artean esan dogu: zer ete dira orrek zeru sabaiko puntu dirdiralariok? Eta or konpon egin eta ez deutsegu geiago jaramonik egin.

Jakitunak ez dabe orrelakorik egiten. Teleskopioaren bidez izarren kiñu guztiak ondo aztertu ta gero, Astronomia deritxon zientzian diño or goietako puntu argiok, euretarik asko beintzat, geurea lakoxe munduak direala. Geurea lakoak osotoro ez. Asko eta asko andiangoak, begi naturalakaz ikusten doguzanak beinik bein, banakaren batzuk izan ezik, eta aretarik edozeiñen ondoan gure Lur gaixoa itxas ertzeko are garautxu bakar bat baiño txikiagoa dala.

Oraintxerik esan daigun izarrak ain txiki emoten badabe, gugandik urrun, benetan urrun, dagozalako dala.

EGUZKIA

Gugandik urreen edo gertuen dagon izarra Eguzkia da. Baiña emendik ara 150 milloi kilometro dagoz. Bere diametrua 1.394.000 kilometro dira. Bere volumena, au da anditasuna: 1.300.000 bidar andiago Lurra baiño. Su garrezko ta gasezko esphera aundi bat da. Bere berotasuna milla ta milla graduzkoa.

PLANETAK

Eguzkiaren inguruan dabiltzaz Planetak deritxoen astroak. Astronomoen esanera, Eguzkiaren zatiak dira. Eguzkiak movimentu andiak eta ariñak daukoz. Ez mirari ba lantzean bein zati batek urten eta berak emon deutson aviadeagaz birabiraka jarraitutea. (Lantzean bein diñodanean, ez dot esan gura illabeterik illabetera, milloikada ta millinoikada sigletan baiño.) Orixe da Planetakaz jazo dana.

Planetak asko dira. Ezagutuenak: Merkurio, Venus, LURRA, Marte, Jupiter, Urano, Saturno, Pluton. Merkurio da txikiena. Gero datoz geroago ta andiago: Venus, Lurra, Marte, Pluton, Urano, Saturno ta Jupiter. Saturnok eraztun andi bat dauko bere inguru guztian, ekuadorean. Urrean, alakoren baten, geiago otzitzen danean edo, etengo balitzakio, satelite biurtuko litzake eraztun ori.

Goizalde argietan, aurorea zabaldu baiño lenago, izar eder eta argitsu bat

ikusten da noizean bein Sortaldean, eta beste batzutan illunabarrean Eguzkia sartu ta gero. Ori da Venus, euskaldun zaararak Albizar eta Artizar esaten eutsena. Gure Lurra-bere, emen eguna danean, eta Venusen gaua, andik ona begiratu ezketiño, geuk bera ikusten dogun baizen argi, ta zerbait andiago, ikusiko genduke.

SATELITEAK

Eguzkiagaz eta Planetakaz jazo dana, beste orrenbeste pasa da Planetakaz eta Sateliteakaz. Planetak Eguzkiagandik alden du ziranean suzko bola batzuk zirean, eta geldiro geldiro otzitzen asi. Baiña eureri-bere zati batzuk soltau yakezan oindiño gasezko estaduan egozala. Lurrari-bere urten eutson onetariko batek, eta orra or nun daukagun Igetargia. Igetargia Lurraren inguruan birabiraka dabillen Satelitea da, 49 bidar txikiagoa. Onek esan gura dau andik ona begiratu ezkeror Lurra 49 bidar andiagoa agiriko litzakigula. Merkurio, Venus, eta Pluton izan ezik, beste Planeta guztiak daukez euren Sateliteak.

Eta onenbestegaz jausiko ziran kon-tuan Sateliteak zer direan: Planeta inguruetan dabilzan astro txikiagoak.

«Sputnik» ez da besterik izan: Lurretik urteniko satelite txikar bat, gizonak egiñikoa, Lurrak bere ardatzaren ganean darabilen movimentu ta aviada andiagaz ibiltan asi, eta arik eta berez apurtu edo ezereztu arte ibili leitekeana.

ORAIN

Experientzia onek erasota, noraiño elduko ete da gizona bere invetzinuetan? Alakoren baten esango ete deuskue ikaragarriko volandera baten urten dabela gizonak Martera, Venusera, Igetargira, eta nok daki nora, ta gizonetzkoak

topau dituezala? Onelakorik ez daki iñok oraidiñokarren, baiña izan leiteke. Eta ez emen aipatu ditugun planetetan bakarrik, bai ta gorago ta urrunago dagozan astroetan-bere bai, batez bere atmospherea, oxigenua ta ura dauketan.

Gure Lurrean zelan sortu zan bizia? Esan dogunez, Eguzkitik soltau zanean, otzitzen asi zan, eta Natura legeak jarraituta, gas estadutik likidura, likidutik soltura etorri zan.

Baiña ez dana. Oraidiñokarren emen daukaguz atmosphera gasezkoa, ta itxasoak eta ibaiak likiduzkoak, batak eta besteak gure organismuarentzat elementurik asko gordetan dituezanak. Onelantxe, gure mundu txikar au *bizia biziteko* egoki aurkitu zanean, Jaungoiko Egille guztiz altsuak ixiotu eban bizitzearen txinparte, lenego, landaretan, gero abereetan. Eta azkenik, guztien errege ta erregiña izateko sortu zituan Adan eta Eva Paradisuko hortuan. Eurak artu eben Jainko Egilleagandik agindua: *Azi ta geitu zaitze, eta bete egizue Lurra, menperatu egizue, eta agindu itxasoko arraiñetan, zeruko egaztietan eta Lurraren ganean bizi ta ibilli dabilzan kreatura guztietan.* (Gen. 2, 28).

Beste orren beste ez ete eban egin beste astroetan? Planetak eta beste astroetarik asko gizonetzkoak biziteko egokiak badira, zegaitik ez dira biziko? Ez diñot seguru bizi direanik, ni ez naiz andik ibillita, nik ez dodaz ikusita. Baiña bai esango dot Jainkoarentzat eziñik ez dagola, ta Bere Omnipotentziari neurriak ipinten zetan ibili-bere ez.

ERLEGINOAK EMEN ZERIKUSI?

Pregunta batzuk egin leitekez orain emen. Gizonetzkoak badira, gu lakoak ete dira? Aragizko gorputz bat eta espirituz-

ko arima bat ba' dauke, gizonak dira, gure ta euren gorputza zearo bardiñak izan ez arren. Gure gorputzari, orain daukon figurea ta izakerea emoteko, elementu asko sartu dira jokoan: Eguzkiaren berotasuna ta argitasuna, aidearen edo uraren epeltasuna, lurraren bustitasuna, jatekoa, edatekoa; berba baten, lenengo andra-gizon pareta zelan urten zan Jainkoaren eskuetarik, alan egin da gure gorputza, aipatu doguzan zirkustantzia guztien eta evoluziñoaren legeen menpean. Beste orren beste esan beste organismu guztiak gaitik.

Zorionekoak ete dira? Pekaturik egin ez ba-dabe, zoriontsuak dira naturalezari berez yagokon zoriontasunagaz. Egin ba-dabe, geu legez sufrimentuaren menpean dagoz.

Jainkoak bere misterioak agertu ba-deutsez, au da, Jainkoaren errevelaziñorik izan ba dabe, geu legez zerura deituak dira, eta, zeguru, an ikusiko dogu alkar.

Ze errevelaziño izan eikean ba eurentzakoa? Ori ezin esan, baiña pentsa daigun: Bear bada, Jainko bakar batean Iru Persona dagozala; Bigarrena Lurrean gizon egin zala, mundu guztien izenean Jainkoari yagokon gloria emoteko, ta, bide batez, pekatua mundutik edo mundu-*etarik* garbitu ta gizon pekataria Jainkoaren adiskidetasunera ekarteko.

San Pauloren esanera Kristo da Universo guztiaren zentrua edo erdiunea. Berak artzen ditu bere Biotzean emengo ta or goietako (ba-dagoz) gizon guztien biotz taupadak, bizi direan eta ez direan kreatura guztien zirkiñak, eta guztien izenean emoten deutso Jainkoari zor deutsagun adoraziñoa, esker ona ta pekatuen ordaingarria. Bai ta, bide batez, irabazi emengo bizitzarako ta bizitza supernaturalerako bear doguzan graziak.


PROBLEMA IKARAGARRIZKOAK

Ona emen kristiñau batek zelako begiakaz ikusi bear dituen emen ikutu ta ezarri doguzan problemata ikaragarrikoak. Universo guztia Jainkoak egiña da *bere gloriarako*. Beste finalidaderik ezin topau leitekio, azkenengorik beintzat. Zeruak eta lurak, kreatura guztiak errazoidunak eta ainbakoak, emengoak eta beste munduetakoak, kanta bear dabe Jainkoaren gloria.

Baiña ori, zor ori, pagetatako ez gara kapas mundu guztiak, eta ez gara iñoiz izango. Jesukristo bai, Jaungoiko Gizona dan ezkerok; eta Beragaz batera guk ederto betetan dogu obligaziño ori.

Problematarik asko ikutu ta ezarri esan dot. Beste asko-bere ekarri leitekez ANAITASUNAREN paginetara. Baiña oraingoan ez dago astirik, ez lekurik, ez zientziarik geiagorako. Alakoren baten nok daki, ba?

Aingeru



Anaitasunaren suskritoereri

ADMINISTRADOREAREN OARPENA

Egun gutxi barru artuko dozue 1958 urteko zeuen suskriziño txantela. Mescedez, ainbat ariñen ordaindu.

Lengo urtekoa batzubatzuk ordaindu dabe. Geienak ez.

Gauzak ondo eroateko, urte bakoitekkoa lenengo lau illabetetan ordaindu bear da.

Lengoa ta oraingoa, ba, arin arin konpondu.

Eta eskerrik asko.

Urte on bat opa deutsuet guztioeri.


Zuen adiskide

A. TEOFILU ARZALLUS, O.F.M.

Administradorea

PP. Franciscanos, Zarauz, Guipúzcoa.

MUNDUAN ZEAR



Batikano'ko radioa Europa'ko nagusi

Batikano'ko Radio zabaltzalea yaku munduko lenetarikoa. Eta ez espiritu-arlotik arturiko geiak zabaltzen ditulako bakarrik, teknika-aurrerapenetan be bardin. Ondo ezaguna da azkeneko urteetan izan direan Aita Santuak, onetan ipiñi izan daberen ardura. Radio ori sorturiko Aita Santu Pio amaikagarrenak, eta gero Pio amabigarrenak, (Radio orren aurrerapenetan ainbat aingindu dan gaurko onek), euren begi-nini kutuntzat euki dabe Radio ori, bera dalako Ebangelioa ta Kristoren Ordezkoaren erakusaldiak millaka kilometroz zabaltzeko bide egoki bat.

ORAIN OGETASEI URTE MARCONI.—Europa osoko Radio zabaltzerik nagusi-ena Batikanon bear zala-ta, Pio amaikagarrenak alako bat egitea agindu eutsan Guillermo MARCONI berari, radio-asmatzaleari. Onek, katoliko zanez, pozez artu eban arazo au. Ta illabete batzutara, Leon IV'ren jauregi ordoan, nun jaso zan Radio-toki ederra. «Marconi»-transmisor bat jarri zan, amazortzi kilovatio'koa, 50'26 ta 19'84 onda luzerakoa. Ta orduan, radio-bidez, lenengo egin eban berba Aita Santuak, biotza dardaka eukala. Ta ara nun Kristok, Palestinako erri koskorretan, zear egiñiko Barri onaren erakusaldi ederren azi kaskarra, arbola aundi biurtuta. Au izan zan Zezeillaren amabian, 1931'garren urtean.

BETI AUBRETIK.—Ona omen urtetik urtera aurrerapenak:

1937: Jarri zirean berrogetamar kilovatio'ko «Telefunken», eta onda labur maila guztiak, Batikanorako apropos egiñak.

1939: Pio XII'ak artzen dau Radio Batikanoren ardura. A. Gianfranceschi, lenengo zuzentzalea, il, eta A. Soccorsi izentatua izan zan bere ordez. Orduan sartu zirean teknika-bide azkenengoenak ta aurreratuenak.

1943: Kilovatio bi ta erdiko «Safar» bat ekarri zan.

1947: Amar kilovatio'ko R.C.A., onda erdikorako.

1949: Ogeta bost kilovatio'ko iru «Marconi» txiki, onda laburrerako.

1952: Lengo «Marconi», ogetaz urteak lanean eroiana, kendu, eta ordez jarri zan beste «Marconi» bat, era aurreratuenera egiña, irurogei kilovatio'koa, onda guztietarakoa.

RADIO BATIKANOAREN JARLEKU BARRIA.—Radio onek lan aundiak izan zituan. 1955'ean 12.438 lan-aldi izan zituan, 28 izkuntzetan, musika-arloa ta jakintza'ri buruzko aldia biak alde batera itxita. Ala ta be urte ori ezta lan geienekoa. Geroago ta aundiagoak yatorkoz lanak Radioari. Ta orregaitik lengo lan-tokia labur geratu zan. Au dala-ta jaso ta zabaldu egin da beste jarleku barri bat S. Maria di Galeria'n. Batikano-Estadu kaskarrean-Erroma barnean-etzan aparato barriak jartzeko leku

bidezkorik. Ganera, Erroma bertako beste radioekin alkar soilu-nasteak be jazo leitekezan. Aita Santuak, ba, erosi zituan terrenoen barriak Erroma-uritik amazortzi kilometrorra ta antxe asi zan jasotzen lan-etxe barria 1955'an. Pisu bi daukoz. Bekoa, elektriko-indarra aldatu ta Radioari emoteko tokia da. Goikoan dago «transmisor» a bera. Lau alderdi dituz onek: 100 kilovatio'ko Philips, onda laburrerako, Olanda'ko katolikoak A. Santuari emonikoa; 10 kilovatio'ko Brown Boveri beste transmisor bi, onda laburrerako onek be; eta 120 kilovatio'ko

beste Brown Boveri bat onda erdikorako. Ta au dana 29 antena'kin, klase ta alturatan alkar diferenteak, onda-luzceran 49 metro-tik 11 metrora elduten dirala.

Labur esateko: Batikanoa da radio-kontuan munduko Estaduetan obeto orniduta dagoana. Ta European dagozanen artean aurreratuena ta indar geienekoa bera da, mundu osoan lenetarikoa dala. Ona emen Aita Santuak bere Artzain-apostolutzarako daukan bide egoki ta lagun kutun bat.

ARIZPE

Urte barri, asmo barri

Ezagun dozu, irakurle, Persiako Artajerjes erregea?

Dorre baten gallurrera igonda, lilluraz egoan bein zelai zabal aretan eukazan milloi soldadueri begira eta begira. Lilluraz eta arro, gudariaren trebetasuna gogora ekarriz. Baña onetan, ustetik gitxienean, negarrari emoten deütso zotinka.

—Zer deragizu negar?— itaunduten deütso adiskide batek.

Eta berak erantzuten:

—Egi negargarri batek, lagun. Emendik eun urtera, nire gudari orretariko bat be ez da bizi izango!

* * *

“Ezta bizi izango” ...20, 40, 60... urte, eta eriotzea. Laburra, igeskorra bizi-tzea, irakurle.

Igeskorra, aizeak bere egoetan daroian odeiaren antzera. Igeskorra, laprast ariñean itxasorantz doian ura legez. Begi ñir-ñir bat, aur.

Ez ete da egia, irakurle, 1957 urtea pozez agurtu zenduala? Ume jaio-barri bat iruditu yatzun, ziur. Eta asmo asko artu zenduzan urtea zear betetako. Era askotako asmoak.

Eta zer? Urtea, agure zar eginda, joan zan geiago ez etortzeko. Eta zure asmuok be, agurearen antzera, tximur eta igertuta joan ziran, bear bada.

Ez diñautsu ezer kolkoak?

* * *

Zuri, ostera, —beste askori ez baña— urte barri bat emon izan yatzu: 1958 urte au.


Eta urte onen asieran be, asmo ederrik asko ikusi nai neukez nik zure biotzean. Gizon zaranez, asmo garbi-bikainik asko. Eta kristiñau zaranez, asmo bikainago.

Entzun eidazu, irakurle. 1958 urteagaz batera, liburu bat jarten deütso Jaungoikoak zure eskuetan. Orri garbi-garbidun liburu bat. Nai zein nai ez, urtearen egun guztietan orritxo bat beteko dozu zure egitekez. Eta urtearen azkenean, liburu ori erakutsi bearra izango dozu, kontuak atarateko.

Ez ete dozu, beraz, inportantzi aundiko gauzea, liburu ori erakustean Jau-nak egiñen eder asko aurkitutea?

Eun urte ez baña, ez dakizu *berau* be amaituko dozunik.

Zuetza



Arrautza onak dozuz, Klaudi?

Alan daukot entzunda: anđdi eta gorriak direala Gerniken sađduten dozuzanak.

Bańa entzun eđazuz erreglatxo batzuk arrautzok estimagarriak izan daizuzan.

1. Zaindu olio-abiak. Umedadea, basea, olio-zirińak... kaltegarri yakoz arrautzeari. Usain txarra eta mikrobioak sortu leikińz.

2. Eta arrautzea loi batuten badozu, zer? Uragaz garbitu eta kito, uste izango dozu, bear bada. Ez, Klaudi, ez. Urak ganeke barniza kendu egiten deufso arrautzeari, eta mikrobio eta bakterieri leku emon. Erremediorik onena? Lenengo erreglea betetzea.

3. Eta Gerniken prezijo gitxi egin, eta etxean gorde gura badozuz arrautzok? Lautik amairurako temperaturea onena. Leku legorńean, sikuan, gorde egizuz.

* * *

Badakizu, Joxepa?

Baietz uste dot. Saguak etxe eta batez bere eskatz baten kaltegarri direana, oba jakin ez! Orregaitik eukiko dozuz gazta eta okela-ta gauzatxuok or, frigorifikoan, gordeta.

Bańa lotsabako ta ausarditsuak ete diran gero sagu zantarrok? Jakintsu bik dińoskue, prubea egin ondoren: saguak, naiz eta frigorifiko baten sartuta egon, pepe eginda bizi oi dira janari ugaria euki ezkerro. Baita bertan kumak atara be egin

leikiez. Otzak ez ditu bape bildurtuten. Zero azpiko lau graduko otza ondo eroaten dabe.

Ia ba, Joxepa, gorde egizuz ba ondo zure gauzatxuok. Ta zure frigorifiko orrek zuñorik eukitekotan, deitu ainbat lasterren galleguren bateri!

* * *

Txarri-kontuak

Dozena erđi txarrikume erosi dozuzala aurten, Patxo? Ez deufue buruko-miń makala emongo. A zeñako pizti triperuek doguzan euek! Osaia edo beste armusu edo bazkaririk onena emon, eta oraindińo be kurrin-kurrinka, beti txilioka ta eske den-ganińuok. Eta metro bi edo iruko aska ori bete-bete egiten badeufszue be, ez yatzuz geratuko bakotxa bere lekuan. Bestaldeko lapikoa gurago; ta or asiko yatzuz baterik bestera, burrukan.

Janari konturik ez deufsut aitatuco, Patxo. Bańa txarriok jatorduetan euren lekuan geđdi egon daitezcan, begira zer egin zein-kean:

Iru metro luzeran eta zabaleran metro erđi daukazan aska orreri, josi egiozuz bost ol luzetxu zabalera direzińoan, eta ikusiko dozu zeinńen formal portauco yatzuzan txarritxuok bazkaritakoan. Sutondoko ainge-rutxo orrek bańo formalago. Bai orixe!

MORGA

LAGUNARTEKO MEZEA

(Misa dialogada en Vizcaño)

Aita Imanol Berriatuak egińa

Bigarren eđizińoa

Foilletu bakotxa: 3 peseta → Ogeitik gora 2,50

SALGAI:

Librería Verdes, Correo, 7, Bilbao
PP. Franciscanos, Bermeo, Vizcaya



V A L E N T I N B E R R I O - O T X O A D O A T S U A R E N K A R T A K

II

Nere amatxo maitia (1):

Sentimentu andiyagaz artu neban atzo aitaren kartia, zeñetan esaten eustan berori makalik zebilela edo egon zala; baiña gaur pizka bat lasaitu naiz, elorriyoar batek esan deustanian jagita ikusi ebala.

Ai amatxo! amaika bider errukitu naiz berorregaz, konsideratzen izan dodanian zer otzak pasatu biarko zituzan goizetan aguardiente tratuan (2); ez neuke nik esango, tratu onek eztaukala parte asko berorren geixuan; da biarbada berori otzak artzen zeguan artian, alabia egongo zan oge epelian.

Ama krijada, ta etxeke andra alabia, osterabere izango dau etxiak abia (3); egurrak, egurrak egin biar gaitu ziurrak (4); larregi errukiorrak izatiak, ekarri oi ditu buruaustiak. Sosiguzao bizitera egin biar dau, ama; bestela, nun topauko dau Valentiñek ainbeste kariño deutsana? Txanua ta intxaurrak asmatu, amoriyuaren indarrak bi ditu (5).

Urrengo eskribiten deustenan, estimatuko dot berorren letria ikustia, eskri-

biten deustala zer modutan portetan dan Martintxo, zer laguntasun egiten deustan Felipak (6); ia goizian goiz jagita, etxeke inguru guztiya egiten daben, berori sosiguz daguala.

Orain bada, amatxo, animo munduko trabajuetan; laster igaroko dira; pazienziaz da Jaungoikuen amoriyuagaitik ermaten badituguz, purgatoriyotzat servituko dute; onetarako deadar egingo dot zerura, emon deiyon Jaungoikuak grazिया, beraren vorondatiagaz konformaturik lurrian, ikusteko zeruan bere arpegiya; au da desio diona berorren seme bakar

Valentin Berrio-Otxoak

Baldin esan badot
Bear baiño geiyago,
Biotzez damu dot,
Barka eske naiyago (7).

(1) Karteak ez dakar fetxarik. Alan ta guztiz-bere, argi dago neguan idatzia izan zala, nunbaite-be 1847 edo 1848 garen urtean.

(2) Tabernatxu bat euken Valentiñen gurasoak.

(3) Laster jausiko jako etxeari abea, laster ondatuko da etxea (esakerea).

(4) Zurrak.

(5) Oskol bat dauko intxaurrak, amodioak bi (maitasunaren indarra adierazoteko esakunea).

(6) Doatsuaren arrebea.

(7) Natxako, Nagokio.